

ETORKIZUNA ERAIKIZ-MISIOAK 2025

Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratu du Etorkizuna Eraikiz ekimenaren esparruan, elikadura jasagarriaren eta mugikortasun berriaren misioetara bideratutako proiektu berritzaileetarako dirulaguntzen deialdia.

Erakunde onuradunen artean unibertsitateak daude. Eskabideak taldean aurkeztu beharko dira. Gutxienez bi erakundek osatu beharko dituzte taldeak.

Horretarako, eskaera bat taldean aurkeztutzat jo ahal izateko, eskaeraosatzen duen erakunde bakoitzaren gutxieneko partaidetza kostu hautagarriaren % 20koa izan behar da.

Unibertsitateen kasuan, ikerketa-talde bakoitzak gehienez bi proiektu aurkeztu ahal izango ditu.

Informazio gehiago, [Gipuzkoako Foru Aldundiko webgunean](#).

Ikertzaile nagusiaren betekizunak:

Funtzionario- edo kontratu-lotura UPV/EHUrekin, eskabidea aurkezten denetik eta proiektua gauzatzen den bitartean (2026eko irailaren 15era arte).

Ikerketa-taldeko kideen betekizunak:

Eskaera aurkezten den unean UPV/EHUrekin funtzionario- edo kontratu-lotura izatea.

GARRANTZITSUA: Ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko beren jarduerari berez dagozkion langileen gastuak.

UPV/EHUko taldeek aurkeztutako eskaerek proiektu bakoitzaren zentroaren aurrekontu osoaren zeharkako kostuen % 20 jaso beharko dute..

Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

Eskabideak aurkezteko epea **2025ko uztailaren 30ean amaituko da, 12:00etan.**

Barne Tramitazioa UPV/EHU:

Ikertzaile nagusiek **2025ko uztailaren 20a** baino lehen jakinarazi beharko dute deialdi honetara eskaera bat aurkezteko asmoa, posta elektroniko bidez, convocatoriasautonomicas.dgi@ehu.eus helbidera zuzenduta, eta **2025ko uztailaren 27an** baino lehen bidali beharko dute eskatutako dokumentazio guztia, epe barruan berrikusi eta aurkezteko.

Egiaztatuko da ikertaldeak osatzen dituzten kideak UPV/EHUren barne-araudia betetzen dutela, unibertsitatearekin funtzionario- edo kontratu-lotura dutenekin.

Aipatutako baldintzaren bat betetzen ez bada, eskabideak ez du legezko ordezkariaren balidazioa lortuko.